



ATAUNGO UDALA

Ohiko bilkura. 2018-07-05

OHIKO OSOKO BILKURA

LEKUA: Udaletxeko Batzar Aretoa.

EGUNA: 2018ko uztailaren 5a.

ALKATEA: Asier Rodriguez Etxeberria.

BERTARATUAK:

- Aitor Arruabarrena Etxeberria.
- Haizea Moreno Torres.
- Migel Mari Jauregi Apalategi.
- Juan Jose Maiza Ariztimuño.
- Oihana Mendizabal Asurabarrena.
- Iker Contreras Vidal.

Ez dira azaldu Karmele Aierbe Muxika eta Amaia Auzmendi Asurabarrena.

IDAZKARIA: Maria Pilar Garmendia Miguel.

BATZARRA: Ohikoa. DEIALDIA: Lehenengoa.

ORDUA: Hasiera: 19:00etan.

Bukaera: 20:10tan.

GAIK:

LEHENENGO PUNTUA:

AURREKO BATZARREI DAGOKIEN AKTEI OHARREN AURKEZPENA.

Idazkariak galdetzen du korporazio kideren batek baduen esango diren inolako behaketarik aurkezteko asmorik. Zinegotzi guztiei alde zuzenetik akta minutak helarazi zaizkie:

- 2016ko azaroak 3 (Ohiko Bilkura)
- 2016ko abenduak 22 (Ezohiko Bilkura)
- 2017ko apirilak 6 (Ohiko Bilkura)
- 2017ko irailak 7 (Ohiko Bilkura)
- 2017ko irailak 28 (Ezohiko Bilkura)
- 2017ko azaroak 14 (Ezohiko Bilkura)
- 2018ko otsailak 8 (Ezohiko Bilkura)
- 2018ko apirilak 5 (Ohiko Bilkura)



ATAUNGO UDALA

Ohiko bilkura. 2018-07-05

BIGARREN PUNTUA: **ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-**

Azaroaren 28ko 2568/1986, Erret Dekretuaren (ROF) 42. artikuluan xedatutakoarekin bat, Korporazio honen azken ohiko batzarretik gaurdaino eman diren Alkatetzaren Ebazpenen berri ematen da, hain zuzen ere 2018/128tik 2018/256 dekretura doazenak, biak barne, honetaz guztiaz Udalbatza jakinean geratzen delarik.-

2018/129	Asesoria Lanki, S.L. ri onartzea eta agintzea zerbitzuaren kontratazioa
2018/130	Ordainketa ezberdinak (Euskal Fondoak)
2018/131	2018/03 zbkko zerrenda
2018/132	Ataungo udaletxeko aeroterma bidezko klimatizazioa instalazio berritzeko proiektua.
2018/133	NED Suministro GLP, S.A.U. Udalerria hornitutako energiaren fakturazioari dagokion tasaren likidazioa 1. hiruhilekoa - 2018
2018/134	Nortegas energia distribución S.A.U. 2018ko 1. hiruhilabeteko bidesariari dagokion kitapena
2018/135	Troskaeta tabernan baimenik gabe egindako berriztatze lanak legezatzeko obra baimen eskaera
2018/136	Ubarrieta etxeko 3-E etxebizitzan sukalde, trasteleku eta komuneko zoladura eta hormen akaberak berriztzeko baimena
2018/137	Olalde etxeko garajeko zoladura berriztzeko obra baimena
2018/138	Santiagoenetxiki etxeko fatxada margotzeko obra baimena
2018/139	Etxeberri taberna eraikineko gas instalazioan berriztapenak burutzeko obra baimena ukatzea
2018/140	LDL AGURTZANE G
2018/141	LDL SOBAI
2018/142	LDL SOBAI
2018/143	LDL AGURTZANE G
2018/144	LDL EL GHETTABI
2018/145	LDL SORAYA C
2018/146	LDL SORAYA C
2018/147	LDL AGUSTIN G
2018/148	LDL RAMIRO
2018/149	LDL JIMENEZ
2018/150	LDL JIMENEZ
2018/151	LDL LAGUNTZA ESKOLARRA
2018/152	Aia auzoa, 10. zenbakian helbideratutako Aiarre zaharra baserriaren mendebaldeko zatiaren estalkia berritzeko obra baimena
2018/153	R-6642-BCG atoi zerga ordaintzetik salbuestea
2018/154	Hornidura kontratu txikia. Eskolako parkerako 2 kolunpio erosteko eta jartzeko kontratua
2018/155	Erbel Elkarteari apirilaren 19an Udaleko pleno aretoa erabiltzeko baimena
2018/156	Biztanleen udal erroldan alta hartzea (Katrina Estefanny)
2018/157	Astigarraga auzoa 15.enean helbideratutako Arandietxe eraikineko sarrerako atea ordezkatzeko obra baimena
2018/158	Juan Jose Dorronsoro Goikoetxeari segregazio baimena



ATAUNGO UDALA

Ohiko bilkura. 2018-07-05

2018/159	2018ko Kultur Elkarteko diru-laguntzen %60
2018/160	Ordainketa ezberdinak (Asier Rodriguez, Iker Lojo, Jose M ^a Aierbe fidantza itzulera, Goieki, Goierri Fundazioa eta Pilota Saila)
2018/161	EDP Comercializadora S.A.U.ri 2018ko 1.hiruhilabeteko tasaren dokumentazioa
2018/162	Ordainketa ezberdinak (Hiru Txilipurditan, Agauntza Kirol Elkarte , Ataun Kirol Elkarte Pilota)
2018/163	SS-10687-VE eta SS-10722-VE ibilgailuak zerga ordaintzetik salbustea
2018/164	Juan Mari Albisu Tolosa. Ibilgailuen gaineko zerga salbuestsia aitortzea minusbaliatasunagatik
2018/165	Araitz Rezola Eskisabel. Ibilgailuen gaineko zergaren salbuespen eskaria ezezte
2018/166	Viesgo Energia, S.L. 2018ko 1. hiruhilabeteari dagokion tasaren likidazioa
2018/167	2018/04 zbkko zerrenda
2018/168	LDL AGURTZANE G
2018/169	LDL AGURTZANE G
2018/170	LDL SOBAI
2018/171	LDL EL GHETTABI
2018/172	LDL EL GHETTABI
2018/173	LDL SORAYA C
2018/174	LDL JAVIER IGLESIAS
2018/175	LDL AGUSTIN G
2018/176	LDL RAMIRO
2018/177	LDL JIMENEZ
2018/178	LDL LAGUNTZA ESKOLARRA
2018/179	LDL JIMENEZ
2018/180	LDL LAGUNTZA ESKOLARRA
2018/181	Endesa Energia, S.A.U. 2018ko 1. hiruhilabeteari dagokion tasaren likidazioa
2018/182	Uhina Matt, S.L.U. enpresaren aurrekontua onartzea proiektorea eta musika ekipoen hornidura kontratatzeko
2018/183	Ataun Irratiari dirulaguntza ematea. Ioar Aizpurua Barriola
2018/184	Joxemiel Barandiaran Herri Ikastetxeari maiatzaren 15ean Herri Antzokia erabiltzeko baimena
2018/185	Jentilbaratza Kultur Elkarteari gazteleku erabiltzeko baimena maiatzak 2tik 10 bitarte, biak barne
2018/186	5847-CZV ibilgailuari baja (Jesus M ^a Oiarbide Berasategi)
2018/187	BI-8822-CH ibilgailuari baja (Jose Antonio Santxex Pintor)
2018/188	SS-8176-AG ibilgailuari baja (Jose Luis Imaz Arratibel)
2018/189	Biztanleen udal erroldan alta hartzea (Nicolas Agustin Osorio Medina)
2018/190	2017ko urtarriletik 2018ko otsailera arteko atzerapenak
2018/191	Olalde 3-4 eraikinetan igogailua jartzeko 070 baimenaren aldaketa
2018/192	Kimuak Aisialdi Elkarteari uztailaren 4 eta 5ean San Gregorioko Elkargunea erabiltzeko baimena
2018/193	Mari Jose Imaz Insaustiri, hitzaldia antolatuzeko, San Gregorioko Elkargunea erabiltzeko baimena
2018/194	Biztanleen udal erroldan alta hartzea (Samira El Maazouz)
2018/195	Biztanleen udal erroldan alta hartzea (John James Loaiza Gomez)
2018/196	Biztanleen udal erroldan alta hartzea (John Sebastian Hoyos Colonia)
2018/197	Errekerimendua bide publikoan abandonatutako ibilgailuak kentzeko (Ford Focus - BI-2262-CT)
2018/198	Serreria y Embalajes Salaberria, S.L.ri jarritako abala bueltatzea



ATAUNGO UDALA

Ohiko bilkura. 2018-07-05

2018/199	Ordainketa ezberdinak (Asier Rodriguez eta Sasieta Mankomunitatea)
2018/200	SS-8426-AZ ibilgailuari baja (M ^a Begoña Munduate Aierdi)
2018/201	SS-1170-BH ibilgailuari baja (Andres Arrondo Barandiaran)
2018/202	Biztanleen udal erroldan alta hartzea (Ioan Alecsandru Pírva)
2018/203	Hiru Txilipurditan Elkarteari datorren maiatzaren 31n eta ekainaren 1 eta 3an Herri Antzokia erabiltzeko baimena
2018/204	Ubarrieta etxeko garajeko zorua berritzeko baimena
2018/205	Informazioa emateko lankidetzaz hitzarmena, Ogasun eta Finantza Departamentuaren eta Ataungo Udalaren artean
2018/206	Garbitzaileen espedientea
2018/207	Informazioa emateko lankidetzaz hitzarmena, Ogasun eta Finantza Departamentuaren eta Ataungo Udalaren artean. D7 eransk.
2018/208	Ataun Kirol Elkarteari datorren ekainaren 3an Auzoeta Udal Kiroldegia erabiltzeko baimena
2018/209	Biztanleen udal erroldan alta hartzea (Xabier Alvarez Etxeberria)
2018/210	Biztanleen udal erroldan alta hartzea (Silvia Mediavilla Rodriguez)
2018/211	2018/05 zbkko zerrenda
2018/212	Beroa Elkarteari datorren ekainaren 3an udalaren hainbat eraikin erabiltzeko baimena XIII. Elkarbitzita jardunaldia ospatzeko
2018/213	Jentilbaratza Kultur Elkarteari gaztelekuak erabiltzeko baimena ekainak 5etik uztailak 13arte, biak barne
2018/214	Jeny Cruz Montesinori Udaleko pleno aretoa erabiltzeko baimena ekainaren 6an
2018/215	Ataungo Mus Taldeari datorren ekainaren 9an Mus Eguna ospatzeko San Gregorioko frontoia erabiltzeko baimena
2018/216	Jose Antonio Urdangarini baimena ematea "Agauntza" mendian erori diren pago egur batzuk egurretarako aprobetxamendua
2018/217	LTMEri ekainaren 14an kurtso bukaerako kontzertua burutzeko herri antzokia erabiltzeko baimena
2018/218	Ataun Kirol Elkarteari datorren ekainaren 10ean Auzoeta Udal Kiroldegia erabiltzeko baimena
2018/219	Ordainketa ezberdinak (Asier Rodriguez, Parketxe Sarea, Goieki, Iker Lojo eta Ane Tapia)
2018/220	LDL AGURTZANE G
2018/221	LDL AGURTZANE G
2018/222	LDL SOBAI
2018/223	LDL SOBAI
2018/224	LDL EL GHETTABI
2018/225	LDL JAVIER IGLESIAS
2018/226	LDL AGUSTIN G
2018/227	LDL RAMIRO
2018/228	LDL JIMENEZ
2018/229	LDL LAGUNTZA ESKOLARRA
2018/230	LDL FATIHA
2018/231	Arrondo Saletxe baserriko teilatua berritzeko obra baimena. Miren Itziar Barandiaran Furundarena
2018/232	Ordainketa ezberdinak (Aiako festak, Ergoneko festak, Arrondoko eta Aiako San Juan Festa eta San Pedro eguneko festa)
2018/233	Murkondo Elkarteari ekainaren 11tik 17ra erakusketa egiteko proiektio gela erabiltzeko baimena
2018/234	Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren finantzaketarako hitzarmen berria
2018/235	Pako Urrestarazuk aurkeztutako erreklamazioa ez onartzea
2018/236	6540 DLZ ibilgailuari baja (Jose Antonio Auzmendi)
2018/237	4630 JLX ibilgailuari baja (Juan M ^a Albisu Tolosa)
2018/238	SS 4829 BJ ibilgailuari baja (Bitor Martin Arza)



ATAUNGO UDALA

Ohiko bilkura. 2018-07-05

2018/239	Ataun Kirol Elkarteari datorren ekainaren 17an Auzoeta Udal Kiroldedia erabiltzeko baimena
2018/240	Biztanleen udal erroldan alta hartzea (Axel Elian Ramirez Betanco)
2018/241	Biztanleen udal erroldan alta hartzea (Jynna Mayerling Hernandez Montoya)
2018/242	Karmele Aierbe Muxikari ekainaren 27an San Gregorioko Elkargunea erabiltzeko baimena
2018/243	Jentilbaratza Kultur Elkarteari Auzoeta Udal Kiroldegian gau ibilaldirako dantza entseguak egiteko baimena
2018/244	San Martingo plazan San Juan bezperan su txiki bat egiteko baimena
2018/245	Aranburu enea eraikineko hegoaldeko zatian baimenik gabe eginiko eraikuntza lanak legezztatzea
2018/246	Jentilbaratza Kultur Elkarteari uztailaren 6an Errementari filma proiektatzeko herri antzokia erabiltzeko baimena
2018/247	Udal Biltegian mailu bat erostea
2018/248	8056-KLK ibilgailua zerga ordaintzetik salbuestea
2018/249	Gutzape etxeko fatxada nagusiko behatokiak bernizatze obra baimena
2018/250	Biztanleen udal erroldan alta hartzea (Pedro Barandiaran Arrastio eta familia)
2018/251	Biztanleen udal erroldan alta hartzea (Mattin Barandiaran Aramburu)
2018/252	Ordainketa ezberdinak (Asier Rodriguez, Alaitz Imaz, Lazkao Txiki Musika Eskola, Asesoria Zugazti...)
2018/253	Prozedura laburtuta 318/2018
2018/254	Ordainketa ezberdinak (Mielmari Jauregi San Isidroko gastuak)
2018/255	Marumendi mendian Agautz parajearen erlauntzak eta nukleoak jartzeko baimena
2018/256	2018/06 zbkko zerrenda

HIRUGARREN PUNTUA:

GIPUZKOAKO ESKALADA GUNEEN BERREKIPAMENDU ETA MANTENUA.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako Mendizale Federazioaren arteko lankidetzaren hitzarmena, "Gipuzkoako Eskalada Guneak Birhornitzea eta Mantentzea 2017-2020" proiektuaren barne dauden 17 eskalada guneen birhornitze eta mantentze lanak egiteko.

Ikusirik gai honen inguruan Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuak landutako hitzarmenaren zirriborroa.

Gaia eztabaidatu ondoren, bozketa egin da honako emaitzarekin:

Aldeko botoa eman dute EH Bilduko 4 zinegotziak eta ATAUN HERRIGINTZAko 3 zinegotziak.

LEHENA: "Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako Mendizale Federazioaren arteko lankidetzaren hitzarmena, Gipuzkoako Eskalada Guneak Birhornitzea eta Mantentzea 2017-2020" proiektuaren barne dauden 17 eskalada guneen birhornitze eta mantentze lanak egiteko" lankidetzaren hitzarmena sinatzea Ataungo Udalaren izenean eta ordezkarietan, igorritako ereduari jarraiki.

BIGARRENA: Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuari erabaki honen berri ematea, horretarako dagokion ziurtagiria eginez, eta halaber, hitzarmenaren bi ale bidaltzea, alkateak sinatuta.



ATAUNGO UDALA

Ohiko bilkura. 2018-07-05

LAUGARREN PUNTUA:

2016. EKITALDI EKONOMIKOKO KONTU OROKORRA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

2016ko Kontu Orokorraren onarpenerako izapidetutako espedientearen edukiaren berri ematen da.

Gaia eztabaidatu ondoren, bozketa egin da honako emaitzarekin:

Aldeko botoa eman dute EH Bilduko 4 zinegotziak eta aurkako botoa ATAUN HERRIGINTZAko 3 zinegotziak.

Bozketako emaitzaren arabera, ERABAKI DA:

LEHENA:

Onartzea Ataungo udalaren 2016ko kontu orokorra eta helburu horrekin izapidatutako espedientea.

BIGARRENA:

Euskadiko Kontuetarako Epaitegiari eta Foru Aldundiari onarpen honen berri ematea, aurrez igorritako Ataungo Udalaren 2017ko kontu orokorren espedientea osatzeko.

BOSGARREN PUNTUA:

2017KO EKITALDIKO KONTUEN OSOKO BILKURAREN ONESPENA, OTSOBIDEKO BATZAR NAGUSIA.

Otsobide S.A. sozietate publikoaren Administrazio Kontseiluak 2018ko martxoaren 12an hartutako akordioaren berri eman da. Honela dio akordioak:

“2017 ekitaldiko gestio txostena eta kontuak.”-

Barandiaran andereak argitu du, kontuetan agertzen diren izakinetan, aribidean daudenak, ez direla gauzatu, ze aurreko ekitaldietan hasi ziren zenbait lanei dagozkien. Lan horiek, ez dute jarraipenik izan (Aia eta San Martin), eta beraz, izakinetatik kendu eta galeretara pasa behar den kopuru bat da.

Bestalde adierazi du ere, ikusten den bezala, entitatearen ondare garbia negatiboa dela, eta honek legez, entitatearen desgitea eskatzen duela. Orain arte, kitapenak sortarazitako BEZak, pauso hori atzeratu arazi du, baina ekitaldian egin diren azken bi duplexen salmentek, nahiz eta nahi baino merkeago, posible egiten dute likidazioa aurrera joan dadin.

Gestio txostena, Memoria, Egoera-balantzea eta Emaitzen Kontua aztertu ondoren, Administrazio Kontseiluak, aho batez onartu du, alde batetik izakineko “aribidean dauden obrak” partida kendu eta gastuetara pasatzea.

Era berean, aho batez onartu dute, urteko kontuak eta gestio txostena onartzea, administratzaileek sinatuak (Urteko Kontuak 1etik 12ra eta Gestio Txostena 13) bi mila eta hamazazpiko abenduaren hogeita hamaikan itxitako ekitaldiari dagozkionak.



ATAUNGO UDALA

Ohiko bilkura. 2018-07-05

Kontuak, Azaroaren 16ko 1515/2007 Dekretuaren arabera PYME ereduari egin dira.

Sozietatea ez dago behartua kontuak auditoritzara ezartzea eta Gestio Txostena egitea, LSCaren 257 eta ondorengo artikuluen arabera.

Era berean, erabaki dute emaitzak modu honetan erabiltzea: 2017ko galerak, 352.815,05 €, Aurreko Ekitaldiko Emaitza Negatiboen kontuari egozte.

Espediente ikusita, bozketa egin da honako emaitzarekin:

Aldeko botoa eman dute EH Bilduko 4 zinegotziak eta ATAUN HERRIGINTZAKO 3 zinegotziak.

Bozketako emaitzaren arabera, ERABAKI DA:

BAKARRA: Otsobide, S.A. ko 2017ko ekitaldiko kontuen onarpena.

SEIGARREN PUNTUA:

ADMINISTRAZIO KONTSEILUAK EGINDAKO PROPOSAMENA UDAL SOZIJETATEA DESEGITEKO ETA LIKIDATZAILEAK IZENDATZEKO.

Otsobide S.A. sozietate publikoaren Administrazio Kontseiluak 2018ko martxoaren 12an hartutako akordioaren berri eman da. Honela dio akordioak:

“Otsobide, S.Aren desegitea.-

Barandiaran andreak eta Lehendakariak adierazi dute, aurrekoa kontuan edukiz, (legez, desegiteko baldintzak ematen direla) eta entitatearen helburuak bete direla kontuan izanik, entitatea desegiteari buruzko erabakia hartu behar dela eta erabaki honen berri hurrengo Batzar Nagusiari eman.

Berlaratutakoek aho batez onartu dute, Otsobide, S.A desegitea. Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 9. Xedapen gehigarriaren (desoreka ekonomikoa) eta Kapital sozietateko zuzenbide legearen 363.1 e) artikuluan jasotakoaren arabera, (galerek ondare garbia kapital sozialaren erdira baino gehiago gutxiagotzen badute) ondorengo ondorioekin:

1. Kitapen epea irekia geratzen da.
2. Entitatearen izena aurrerantzean “OTSOBIDE S.A. LIKIDAZIOAN” izango da.
3. Gaur egungo administratzaileak likidadore bilakatzen dira kapital sozietateko zuzenbide legearen 376.1 artikuluen arabera.
4. Kitapen balantzea onartzen da.



ATAUNGO UDALA

Ohiko bilkura. 2018-07-05

Era berean, erabaki honen berri hurrengo Batzar Nagusiari ematea adosten da, honek berretsi dezan.”

Transkribatutako akordioa behin ezagututa eta kontuan izanda sozietateak aurreko ekitaldietan eduki dituen galerak, Udalak ondoren azaltzen den akordioa hartu zuen, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko bederatzigarren xedapen gehigarriaren eta kapital sozietateen 1/2010 Legearen arabera eta zinegotzi hauen aldeko botoekin: EH Bilduko 4 zinegotziak eta ATAUN HERRIGINTZAKO 3 zinegotziak.

LEHENA: Otsobide S.A. sozietatea desagitea. Sozietateak bere nortasun juridikoari eutsiko dio eta likidazio aldian hasiko da, izena hau izango duelarik: “OTSOBIDE S.A. EN LIQUIDACION”.

BIGARRENA: Kargutik kentzea Sozietatearen Administrazio Kontseiluko kideak, zinegotzi hauek hain zuzen ere:

- Asier Rodriguez Etxeberria.
- Karmele Aierbe Muxika.
- Aitor Arruabarrena Etxeberria.

HIRUGARRENA: Sozietatearen likidatzaileak izendatzea. Likidatzaileek organo kolegiatu moduan jardungo dute, Likidatzaileen Kontseilua izeneko organoa osatuko dute, mugarik gabeko epean, eta kargu hauek izango dituzte:

- Presidentea: Asier Rodriguez Etxeberria
- Bokalak: Aitor Arruabarrena Etxeberria.
- Idazkari ez kontseilaria: Haizea Moreno Torres.

Likidatzaileek era kolegiatuan jardungo dute eta Estatutuek Administrazio Kontseiluari buruz eta kapital sozietateen Legeak xedatzen dutena aplikatuko zaie, likidatzaileei aplikatzen dakizkiekeen lege xedapen espezifikoen aurkakoak ez badira betiere.

LAUGARRENA: Likidatzaileen Kontseiluko presidentea ahalduz da, hartutako akordioak Merkataritza Erregistroan inskribatzeko bete behar diren tramiteak eta prozedurak bete ditzan.

PREMIAZKO GAIAK:

Azaroaren 28ko 2568/1986 Erret Dekretu bidez onartutako Toki Entitateen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoaren Araudiko 91.4 artikulua betetze aldera, bilera honetako gai zerrendako puntuak aztertu eta galde-eskeekin hasi aurretik, alkateak galdetu du ea talde politikoren batek baduen asuntorik presa dela eta Udalbatzarrari aurkezteko, deialdiarekin batera entregatu zen gai zerrendan ez egoteaz aparte galde-eskeetan sartzeko modukoa ere ez den gairen bat alegia.



ATAUNGO UDALA

Ohiko bilkura. 2018-07-05

Alkateak ohiko bilerak egiteko egutegia aldatzea proposatu du.

Aurreko hori Plenoaren kontsiderazioa jarririk, aho batezko adostasunez proposamena premiazkoa aitortzea eta batzar honetako eguneko aztergai zerrendan sartzea onartzen da.

ZAZPIGARREN PUNTUA: OHIKO BILERAK EGITEKO EGUTEGIA ALDATZEKO PROPOSAMENA.

Alkateak ohiko bilerak egiteko egutegia aldatzea proposatu du. Alkateak Udalbatzari proposatu dio, Udalbatzak ohiko osoko bilkura hiru hilean behin egitea, hileko lehen ostegunetan, arratsaldeko zazpitan. Hurrengo ohiko bilkura urriaren 4an egingo da eta handik hasita, hiru hilabete behin ospatuko dira.

Eta besterik gabe bozketa egin da honako emaitzarekin:

Aldeko botoa eman dute: EH Bilduko 4 zinegotziak eta ATAUN HERRIGINTZAko 3 zinegotziak.

Bozketako emaitzaren arabera, ERABAKI DA:

BAKARRA: Ohiko bilerak egiteko egutegia aldatzea.

ZORTZIGARREN PUNTUA: ERREGU ETA GALDERAK.

Puntu honetan, lehendakaritzak bertaratutakoei luzapena egiten die interesgarriak deritzoten galde-eskeak egin ditzaten.

Egoera honetan, 20:10 ordu direnean, Presidentziak batzarra amaitutzat jotzen du, akta hau egiten delarik, nik, idazkari honek, diodanez gertaturiko guztiaren islada zehatza dena. Fede ematen dut.



Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak,

MARIA PILAR GARMENDIA
MIGUEL - 72574128C

Firma de las Librerías por MARIA PILAR
GARMENDIA MIGUEL - 72574128C
Fecha: 2018/07/05 11:22:29 +0200

Maria Pilar Garmendia Miguel,

